

Eibarren, 2002.eko azaroaren 29an

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,
Xabier Kintana, idazkaria,
Beñat Oihartzabal, Iker Sailburua
Andres Urrutia, Jagon Sailburua,
Miren Azkarate,
Jean Louis Davant,
Patxi Goenaga,
Andres Iñigo,
Emile Larre,
Txomin Peillen,
Juan San Martin,
Jose Mari Satrustegi,
Piarres Xarritton,
eta (eguerdian) Patxi Zabaleta
euskaltzainak,
Jose Luis Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea; Juan Jose Zearreta, ekonomi eragilea, dirulaguntza gaian eta Rikardo Badiola argitalpen eragilea, azken puntuan.

Ezin etorriak: P. Altuna, P. Salaburu (bere ahala M. Azkarateri utziz), J.A. Arana Martija eta A. Eguzkitza (biok beren ahalak X. Kintanari utziz), P. Ondarra eta J.M. Lekuona (beren ahalak Haritschelharri utziz).

Batzarra goizeko 10etan hasi da Portalea Kultur Etxean, ezkerreko zutabeen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Akta onartzea

Lapsus batzuk zuzendurik, akta ontzat eman da.

Harremanak

3.1. J. Haritschelharrek Nicolas Sarkozy Frantziako Barne arazoetarako mi-

nistroari euskararen ofizialtasunaz bidaliriko gutuna irakurri du, euskaltzain guztiek onartua.

3.2. Real Academia Galegako gutuna irakurri du euskaltzainburuak, Asturiasko mendebaldean galizierak duen egoera azaltzen duena. J.L. Lizundiak gutunaren helburuaz xehetasunak eman ditu, galego-asturiarren arteko liskar egoera argitzeko.

3.3. Ondoren, idazkariorde-kudeatzaileak Academia de la Llingua Asturianaren gutuna irakurri du. Bertan laguntza eskatzen zaio Euskaltzaindiari asturieraren ofizialtasunaren alde.

J.M. Satrustegik ohartarazi du hango populazioaren herenak asturiera darabilela, eta, bere ustez, Euskaltzaindiaren atxikimendua merezi du.

J.L. Lizundiak uste du erantzun bana eman behar zaiela, galegoei beren kezka ulertuz eta asturiarrei atxikimendua emateko.

X. Kintanak, asturieraren gaurko egoera ulertzeko, mintzaira horrek gaztelaniaren inguruan aspaldian duen menpekotasuna eta tradizio idatzirik eza gogoratu ditu.

J.M. Satrustegik galdetu du ea bazterkeria hori ez ote datorkion bertako agintarien ideologiatik. J.L. Lizundiak, datuekin, arrazoa eman dio.

3.4. A. Iñigok, Lekunberritik helduriko gutuna irakurri du, Uitziko kontzejuak antolatzen duen «Orixe» literatur sariketetarako epaimahikide bi izendatzearen eskariaz. Literatura batzordearen esku uztea erabaki da.

3.5. Federiko Belaustegigoitiaren omenezko bilera Laudion.

J.L. Lizundiak horri buruzko azalpenak eta xehetasunak eman ditu. A. Urrutiak bilera horretara zuzenbide arloko hitz zerrenda batzuk aurkezteko asmoa agertu du, euskaltzainen oharrekin hornitu eta zuzendu ondoren, hiztegi batuan txertatzeko.

Bestalde, iaz, urte amaieran finkatu bezala, abenduko osoko bilkura, Araban tokatzen dena, Laudioko udaletxean izango dela oroitarazten da.

Eusko Jaurlaritzaren ez ohiko diru-laguntza

Egun batzuk lehenago prentsak berria barreiatua izan arren, Eusko Jaurlaritzak Euskaltzaindiari emandako diru-laguntza ofizialki jakinarazi zaie euskaltzainei.

J.L. Lizundiak lehendakariari horregatik eskerrak emateko gutunaren zirriborroa irakurri du. Iradokizun batzuk kontuan hartuta onartzen da.

H. Knörrek Jaurlaritzak prentsarako atera duen internet-oharra kritikatu du, daukan kutsu politikoagatik, eta manerak hobeki zaintzeko eskatu du eta Arabako Diputazioan gutunak sortaraziriko disgustua aipatu du. X. Kintanak kazetariak horretaz egindako interpretazioa are okerragoa izan dela uste du eta kontu horiekin arreta handiagoz jokatu beharko litzatekeela. M. Azkaratek bera euskaltzain gisa etorri dela esan du, eta Euskaltzaindiak bere kexak Kultura Sailari bidali beharko litzekiela.

J.L. Lizundiak kazetarien inprebisibilitatea aipatu du eta Estatuaren administrazio- eta Gobernuako arduradunekin izandako harremanetan arinkeriaz jokatzek ekar ditzakeen arazoak ere bai. Prentsan agerturiko titular sentsazionalista batzuk ez direla mesedegarriak izango pentsatzen du.

A. Urrutiak hitzarmen berriari buruzko kontsiderazio batzuk egin ditu, oraindik ezer sinatu gabea baita, puntu ilunak argitu nahian. Eusko Jaurlaritzari eskerrak ematea bidezkoa deritzo, eta Nafarroako Gobernuari, besterik gabe, aspaldian hitzartua bete dela adierazi behar zaiola.

P. Goenagak galdetu du noraino bete den Nafarroako Gobernuaren aldetik hitzarmen-protokoloan ezarria eta ea ordainketa garaiz egin ote den. J. Haritschelharrek, erantzunez, berandu bada ere, dirua eman egin dutela azaldu dio.

P. Goenagak Pedro Pegenaute jaunaren deskortesiazko hitzak ere gogoratu ditu. A. Urrutiak horri buruzko xehetasunak eman ditu, P. Pegenauteren barkeskea eta ondoko zuzenketak aipatuz.

P. Xarritonek esan du euskaltzainak ez direla prentsan inoren erruagatik agertzen diren hobendunak, eta, beraz, horri ez zaiola garrantzi handirik eman behar.

A. Iñigok, ordea, uste du gauza horiek ez dutela batere laguntzen giza harreman onak ezartzeko orduan, elkarren arteko susmoak eta mesfidantzak sortarazten dituztelako.

J. Haritschelharrek erantzun du bere ustez ez duela merezi pertsona batzuen esan hutsengatik mintzea ere.

Euskaltzain ohorezkoak izendatzea

Proposatuen *curricula* aurkeztu ondoan, bototara jo da eta gehiengoz ondokoak euskaltzain ohorezko izendatzea erabaki du Euskaltzaindiak: Juan Garmendia Larrañaga, Jose Maria Larrarte Garmendia, Ander Manterola Aldekoa, Georges Rebuschi, Vahan Sarkisian eta Larry Trask.

Hiztegi Batua

M. Azkaratek, P. Salabururen lekua hartu du Hiztegi Batuko idazkari gisa, eta **amantal-analizatzaile** arteko hitzak aztertu, eztabaidatu eta onartu dira.

VII. Herri Literatura Jardunaldiak

Bileraren bukaeran Euskaltzainburuak Eibarren J.A. Mogelen omenez antolatutako jardunaldien, hots, aurten etno-kantu laburrez egindakoen ondorioak aurkeztu eta irakurri ditu.

Argitalpenak

Euskaltzainen artean ondoko obrak banatu ditu Rikardo Badiola argitalpen eragileak: Euskaltzaindiaren *Argitalpenen katalogoa*, *Narrazioak eta olerkiak* (2001.eko R.M.Azkue literatura-sariketa irabazleen lanak), P. de Yrizarren *Memorias de un vas-cólogo*, (H. Knörrek eta I. Yrizarrek paratu eta argitaratua), eta Euskaltzaindiaren 2002.eko Eguberri eta Urte Berrirako *Gabon-txartelak*.

Bilera 14,26etan amaitu da.

Euskaltzainburua
Jean Haritschelhar

Idazkaria
Xabier Kintana